


“Ikasleen gorputzak eta beraien garapena. Heziketa afektibo-sexuala hezkidetzaren ikuspegitik”



NAIKO ONLINE ITZADAK


NAIKO ONLINE ITZADAK

Zein da gorputzaren inguruan jasotzen duten eredua?



	Gorputzeko alorra	1. ZERGATIK? FUNTZIONAMENDU A Ondo funtzionatzen du? Gaizki funtzionatzen du?	2. ERGATIK? ATSEGINA EDO MINGARRIA. Laztandu ezker atsegina da? Min ematen dizu? ...	3.ZERGATIK? FORMA EDO TAMAINA. Handiegi da? Txikiegia?
Gustatzen zait	Nire begiak	✓ Ondo ikusten dudalako		
Gustatzen zait	Nire usaina		✓ Ondo usaintzen dut	
Gustatzen zait	...			
Ez zait gustatzen	Txorkatila		✓ Okertu egin dut eta min egiten dit	
Ez zait gustatzen	Belarriak			✓ Iseka egiten didate
Ez zait gustatzen	...			





ESTETIKA: FORMA ETA TAMAINA

FUNTZIONALTASUNA: BADABIL EDO EZ

PLAZERA-MINAREN ITURRI

Zein da harremanetaz jasotzen den eredua?



**Jokabide erotikoen
errepresentazio esplizituak
dira, ikuslea kilikatzea
helburutzat dutenak**

Pornografia



**Bere helburua ez da hezteak,
Baina eremu sexual, afektibo eta
sentimentalak duen hezkuntza-hutsunea
okupatzen du**

Debekatu ordeaz, hezi

Aktiboki: bilatzen
da

Pasiboki: bilatu
gabe agertzen da



1

Eszitatzea edo/eta masturbatzea

2

Jakinmina asetzea

3

Praktika erotikook ezagutu,
Gorputz-anatomia ezberdinak
ezagutzea



Haur eta gazteengan, sexualitate
eremuan ezagutza iturri nagusia da
horregatik, hezteko gaitasuna du



normalizatu baten gabeziaren aurrian, pornografia da iturri esplizitu bakarra.



Pertsonen eskematizazio
psikologikoa eskaintzen du
(sexuaren araberakoa).



Alor komunikatibo, emozional eta
Afektiboa desagertzen dira.
Sinplifikazioa.



Harremanen ikuspegi genitalizatua
(koitozentrikoa, falozentrikoa,
sexista, orgasmozentrikoa)



Arriskuzko jokabideen normalizazioa
(Infekzioak, haurdunaldiak,
emozionalak).

Gizonezkoak subjektu aktibo gisa,

Emakumezkoak pasiboak eta
esanekoak..



Sedukzkoa, elkarrizketak eta adierazitako eskaeren sinplifikazioa



Batez ere, desira, begirada eta
plazera gizonezkoengan.

Emakumeen umiliazioa

Testuingurik gabeko harremanak:
emozioen sinplifikazioa.




Lorpen errazak eta disponibilitate
handia. Paktuak eta kontsentsuak
ikustezin.



Zakilaren tamaina eta
funtzionaltasunaren balorazioa
(iraupena, kontrola) eta biolentzia.



Helburu finalista: “preliminarak”,
sarketa (korapiloa),
gizonaren eiakulazioa (bukaera).



Genero estereotipoak eta
patriarkatuan oinarritutako
botere harremanak




**Komunikazioa, negoziazioa,
errespetua eta enpatia landu behar
dira. Hauek dira biolazioaren gidoi
sozialari aurre egiteko antidotoa.**

ERREALITATEK URRUNTZEN DIRA ESPEKTATIBAK


GIZA
SEXUALITATEA
REN BERTSIO
DISTORTSIONA
TUA DA

Pornoa fantasiak
sortzeko egina dago




**Pornoa hegemoniko matxista,
etnozentrista, lesbofoboa, homofoboa,
transfoboa eta kapazitista izan
daiteke, sortzen eta kontsumitzen
duen kontsumo gizartearen antzera.**

Zer gehiago iristen zaie?



Lehiakortasuna



TELEBIST
A

Dimorfismo sexuala

Giza balioak



Harreman ereduak



Gizontasuna eta
ausardia



ZINEMA


Gizontasun eredu
berriak



Feminitateak



Zein da irakasleen rola?



SEXU HEZKUNTZA EREDUAK

HIRU ROL EDO PAPER BEREIZIAK

3) Profesionalak

·Esku hartzean ez du bere iritzia, esperientzia edo sinismenak oinarritzat hartu behar

- Profesionalak autoezagutza eta autokontrola izan behar ditu
- Ez dira jarraitu beharreko ereduak eta anitzak dira baita ere
- Bere bizitza pribatua erreserbatuko du, eredu ez bihurtzeko
- Kontzientzia objetoreak izatekotan (abortoa, preserbatiboa, koito osteko emerjentzia pilula...), bitartekoa eskainiko duen beste baten erreferentzia zuzena emateko betebeharra



4. EREDU BIOGRAFIKO-PROFESIONALA

SEXU HEZKUNTZA EREDUAK

HIRU ROL EDO PAPER BEREIZIAK

3) Profesionalak (jarraipena)

“Profesionalak ez dira neutralak euren sinismen eta jarreretan, baina euren bezero/paziente/ikasleen sinismen eta jarrerak oso serio hartzen dituzte eta horrexegatik ahal duten guztia egiten dute ez manipulatzeko eta eurenak ez ezartzeko”.



Félix López
Sánchez

4. EREDU BIOGRAFIKO-PROFESIONALA

Zer dio curriculumak?



OINARRIZKO HEZKUNTZA CURRICULUMA



Elkarbizitzarako konpetentzia.



Osagaiak. (40.orr.)

- 1. osagaia:** norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
- 3. osagaia:** norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- 4. osagaia:** gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.



Norbera izaten ikasteko



konpetentzia. 5.osagaia. (52.orr.)

**5. osagaia: gorputzaren funtzioak
eta norberaren osasuna, ongizatea,
gorputz-irudia eta sexu-nortasuna
autorregulatzea.**

Gorputz-dimentsioaren



Gorputz-irudiaren autorregulazioa:

Nork bere gorputzaren gainean duen kontzientzia edo irudipena da gorputz-irudia; irudi hori positiboa izango da, baldin eta bere irudia onartzen badu norbanakoak, eta negatiboa, hura gaitzetsiz gero. Gorputz-irudiari buruzko arauak ezartzen dituzte modak eta edertasun-kanonei buruzko gizarte-estereotipoek, eta arau horietara egokitu ezean, gizarte-presio handia egiten dute, batez ere nerabezaroan eta gaztaroan, norberaren nortasunaren oinarriak finkatzen diren garaian.

Autoestimua txikiagotu dezake gorputzaren irudi edo autokontzeptu negatiboa izateak, eta horrek segurtasunik ezaren arriskua dakarkio pertsonari. Segurtasunik ezak ondorio kaltegarriak izaten ditu, bai ekimen pertsonalean, bai ikastean, bai gainerako pertsonetikiko harremanetan.



Sexu-nortasunaren autorregulazioa:

Sexu-nortasuna zehazten dute emakumea, gizona edo sexuartekoa izatea dakarten ezaugarri biologikoen kontzientziak eta norberak sexualki gehien identifikatzen dituen ezaugarri psikologikoen kontzientziak. Sarri askotan gertatzen da ezaugarri biologikoak eta Psikologikoak bat ez etortzea edo, bat etorrita ere, negatiboki balioestea. Pertsonak ez dute beti izaten

sexualtasuna sentitzeko eta erabiltzeko joera edo orientazio berbera.

Eskola inklusiboak kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza-aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei; horrenbestez, eskola inklusiboaren planteamenduan sartzen da aniztasun horren Errekonozimendu-faltaz kontzientzia hartzea, genero-arrazoiengatiko gizarte-presioez eta bazterketez jabetzea, eta diskriminazio-egoerak

erregulatzea. Osagai honekin lotutako balio

eta jarrera nabarmen dira nork bere burua zaintzea kalte fisikotik babesteko, gorputzaren zentzumen guztien bitartez esperimendatzeko plazera bilatzea, gorputzaren mugak eta ahalmenak ezagutzea eta onartzea eta norberaren gorputzaren irudiarekin eta sexu-nortasunarekin pozik eta onik egotea.

Konpetentzia sozial eta zibikoa.

(90.orr.)

- 4. Osagaia:** Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoereiburuzko iritziak osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.

Arlo eta ikasgai sozial eta zibikoek ematen duten laguntza oinarrizko konpetentziak lortzeko (93.orr.)

Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Beren burua hobeto ulertzen laguntzen die konpetentzia sozial eta zibikoko ikasgaiek ikasleei, pertsona errepikaezinak diren aldetik.

Konpetentzia motorra (103.orr.)



3. Osagaia: Gorputza naturaltasunez edo intentzioz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

...

Gorputz Hezkuntza bide oso egokia da konpetentzia motorraren alderdi sozioemozionala lantzeko eta garatzeko.

Adierazpen korporal eta dramatikoek alderdi ludikotik lantzen dute jarduera fisikoaren dimentsio sozioemozional hori. Nork bere burua eta norberaren emozioak ezagutzea eta ulertzea da gainerako pertsonen sentimenduak ezagutu eta ulertzeko bidea, eta bide hori urratu behar da, era berean, harremanak izan eta elkar ulertzeko, helburu komunak lor diren aldetik.

Lehen hezkuntzako curriculumaren berariazko ikuspegia

Zientziarako konpetentzia

(190.orr.)

Etapak helburuak:

1. Nork bere burua eta osasuna zaintzeko eta bizimodu osasungarria izateko jarreraketa ohiturak garatzea, giza gorputzaren ezagutza zientifikoa oinarri hartuta, eta Banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta banakoei nahiz taldeei eragin diezaieketen arriskuak saihestuz.

Edukiak. (191.orr.)

2. eduki multzoan (Gizakia eta osasuna), zenbait gairi buruzko ezagutzak landuko dira: norberaren gorputza, organoak eta haien funtzioak; gorputzaren zaintza; jarrera positiboak eta arriskuen prebentzioa; osasuna eta gaixotasuna; eta erabakiak hartzea.

Konpetentzia sozial eta zibikoa

(208.orr.)



- (212.orr.) Gizonek eta emakumeek historian subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.
- (220.orr.) Emakumeen bizimoldeak, lan-baldintzak eta aldarrikapenak, eta eskubideen galera/irabazien bilakaera.
- (225.orr.) Publizitate-iragarkiak begirada kritikoarekin aztertzen ditu, eta iragarki horietan estereotipo sexista posibleak identifikatzen ditu.
Irudizko produktu baten publizitatea estereotipo sexista eta diskriminatzailerik gabe egiteko iragarki bat lantzen du taldean, eta, horretarako, tresna digitalak edo bestelako tresnak erabiltzen ditu.

Balio sozial eta zibikoak (237.orr.)



ETAPAKO HELBURUAK

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutu eta finkatzea bere pribatutasun-espazioan, besteen nortasuna errespetatzea eta autoestimua garatzea, nork bere bizitza eta talde-bizitza baikortasunez bizitzeko.
6. Generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatzeko.

Balio sozial eta zibikoak

- (247.orr.) Lehen hezkuntzako bigarren zikloa.

Ikuspegi kritikoaz epaitzen ditu hurbileko bereizkeria- eta diskriminazio-kasuak; bereziki, LGBT kolektiboek lotuta, generoarekin eta orientazio afektibo-sexualarekin zerikusia dutenak.

Balio sozial eta zibikoak (248.orr.)

9. Gogoz parte hartzea gizartean eta gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasuna eta ardura partekatuak balioestea.
- Ikuspegi kritikoz epaitzen ditu gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna bortxatzen duten jarrerak.
 - Beste sexuko pertsonekin lankidetzan jarduten du hainbat eskola-egoeratan.
 - Hainbat jarduera mota egiten ditu, generoa kontuan hartu gabe.
 - Euskal gizarteko emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunari buruzko ikerketa bat egiten du.
 - Genero-diskriminazioa esanbidez baztertzen du.

Balio sozial eta zibikoak (248.orr) (II)

10. Gizonak eta emakumeak eskubide berberak dituztela eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan ardura bera dutela balioestea, eskubide eta ardura horiek betetzea, eta horiek guztiak hausnarketa eginez, laburtuz eta egituratuz arrazoitzea.

- Argudioak emanez azaltzen du gizonen eta emakumeen arteko eskubideberdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzunkidetasuna balioestearen garrantzia.
- Gizonak beste pertsonak zaintzen eta etxeko zereginetan izaten duten parte-hartzeari buruzko datuak biltzen ditu, eta ondorioak ateratzen ditu.
- Genero-desberdintasunak harreman afektiboetan dituen ondorioei buruz eztabaidatzen du.
- Elkarriketa erabiltzeko eta zereginak b

Konpetentzia motorra (268.orr.)

- Generoen desberdintasunen arteko estereotipoek, gorputzaren eta mugimenduen adierazpen-ahalmenen murrizketan duten eragina ikertzea eta horiez jabetzea.

(279.orr.)

- Generoen arteko desberdintasunek kirol-jardueretan duten eragina gainditzeko erakezagutzen eta erabiltzen ditu. Joko-arauak ezagutzen eta onartzen ditu.

**Zer landu dezakegu
irakasleok?**

Sexudunon hezkuntza

- Norbere jarrerak aztertu eta elkarrekin hausnartu
- Informazio esplizitua eskaini. (eszitazioa, desira, orgasmoa, estimulazio motak...)
- Jokabide akontzeptiboak ezagutzera eman
- 5 zentzumenen indar erotikoa azpimarratu
- Kontsentimentuari buruz hitz egin. Ahozko komunikazioa eta ahozkoa ez dena, biak landu
- Ez dadila pornoa izan lehen gorputz biluziak ikusteko duten aukera.
- Internet bidez aniztasuna eskura dugu, aprobetxatu dezagun.

“Ezagutu, onartu eta erotika bizi zoriontsu izateko moduan”.

Carlos de la Cruz

TRATU ONAK INFINITOAK DIRA

Harreman interpertsonalak hobetzeko, **praktika positiboak ikasteko** estrategia da.

Indarkeriaren antidoto naturala da.

Norbanakoen eta kolektiboen jokaerak bideratzen ditu,
haien bertsio hoberena sustatu, txalotu eta indartuz

Balio positiboak eragiten ditu.

INTIMITATEA

PERTSONALIZATUA

AUTONOMIA

PAKEA

ERRESPETUA

ZAINTZA

BESTEAREN ALOR POSITIBOAK IKUSIZ

KONPLIZITATEA

PAREKIDETASUNA

PLAZERA

ABERASTASUNA

ANIZTASUNA

DESIOA

KONFIDANTZA

LAN MULTZOAK

- HARREMAN EREDUAK
- GORPUTZ GAITASUNAK ETA ALDAKETAK
- IDENTITATE SEXUALAK ETA GENERO ROLAK

HARREMAN EREDUAK (I)

- **Zertaz ari gara?** Egiten denaz. (ikus definizioak)
- **Mezu nagusia:** Harreman ereduen aniztasuna. Afektuaren garrantzia hartu-emanetan. Plazeraren lekua.
- **Zeri nahi diogu aurre egin?** Pornografiaren ereduari (hutsa, publikoa, afekturik gabe, emakumeen plazera zalantzan, penetratiboa...)

HARREMAN EREDUAK (II)

- **Zein eduki landuko ditugu?**
 - 5 zentzumenen indar erotikoa eta plazer iturria
 - Afektuzko harreman desberdinak (ezezagun, ezagun, familia, lagunak...)
 - Harremanen etika
 - Desiraren orientazioa
 - Sexu eta ugal eskubideak
 - Postura erotiko estereotipatuak vs zentzumenak, gorputz ariketak

GORPUTZ GAITASUNAK ETA ALDAKETAK (I)

- **Zertaz ari gara?** Pubertaroa. Bigarren mailako sexu karaktereak. Gorputz-aniztasuna.
- **Mezu nagusia:** bakoitzaren gorputza bere erritmora aldatzen da. Gorputz guztiak desberdinak dira. Nola maitatu gure gorputzak, bere aukerak balioan jarri.
- **Zeri nahi diogu aurre egin?** Gorputz eredu bakarrari, estetikan oinarritua.

GORPUTZ GAITASUNAK ETA ALDAKETAK (II)

- **Zein eduki landuko ditugu?**
 - 5 zentzumenen indar erotikoa eta plazer iturria
 - Giza erantzun sexuala
 - Pubertaroko aldaketak, 2. mailako karaktere sexualak
 - Ugalketa (obulua eta espermatozoideak estereotipatu gabe)
 - Komunikabideen eredu estetikoaren gaineko ikuspegi kritikoa landu (sexismoa, besteak beste)
 - Komunikazio ez-berbala landu

SEXU IDENTITATEAK ETA GENERO ROLAK(I)

- **Zertaz ari gara?** Neska/mutil identitateak eta genero estereotipoak.
- **Mezu nagusia:** pertsona gehienak neska edo mutil sentitzen dira, ez da aukera bat. Nola jantzi, zein jolasetan aritu, nola espresatu... genero rola dira eta malgutasuna ezinbestekoa da norbera izan ahal izateko.
- **Zeri nahi diogu aurre egin?** Sexu identitate higiezina eta estereotipatuari.

SEXU IDENTITATEAK ETA GENERO ROLAK(II)

- **Zein eduki landuko ditugu?**
 - Transexualitate egoeraren Eusko Jaurlaritzako protokoloa (ikus gida)
 - Jolasak, janzkera, gustuak eta identitate sexualak anitzak direla helarazi eta malgutasuna sustatu
 - Erreferenteak erakutsi (naizen.eus baliabideak)
 - Lehiakortasuna gutxitu, ahizpatasuna handitu
 - Kolore arroxarekiko fobia landu

OBULUAK ETA ESPERMATOZOIDEAK

Rol estereotipatuaren erromantzea

Emily Martin-n ikerketan
oinarritua

HARREMANEN ETIKA

ONESPENAREN ETIKA –BIOLENTZIA

PLAZER PARTEKATUAREN ETIKA – OBJETU

SEXU OSASUNAREN ETIKA –ARRISKUAK

LEIALTASUNAREN ETIKA –ENGAINUA

BERDINTASUNAREN ETIKA- SEXISMOA

LOTURAREN EDO LOTURATIK ASKATZEAREN ETIKA –
SUMISIOA

ETIKA UTOPIKOA: MAITASL

KOMUNIKAZIOA IREKIA, JARRAIA, EGIAZKOA ETA AUTENTIKOA

Jarrera kritikoa sustatu,
Haurrekin enpatizatuz eta
haien lekuan jarritz.

TRATU ONETAN HEZI

Ikusgarri diren afektuzko adierazpenak
sustatu

Eta balioan jarri sexualitatearen ereitea eta
intimitatearen balioa.

**IKUSPEGI
POSITIBOA
ESKAINI**

Beldurraren ordezt,
aukerak ikustarazi

Urgentziaren ordezt,
prebentzioa

ANIZTASUNARI LEKUA EGIN

Aukera desberdinak begi
bistaratzeko
aukerak probestu

DINAMIKAK SORTUKO DITUGU

ESPERIMENTAT
U

DOKUMENTATU

ANALIZATU

ESPRESATU

ESPERIMENTATU

TRUKEAK EGIN
EGUN BEREZIAK ANTOLATU
GORPUTZ ARIKETAK EGIN
AGENDA ALDAKETAK EGIN
ARAUAK ALDATU EGUN BATZUETAN
ESPazio BERRIAK SORTU EDO ERALDATU
TRANSFORMAZIOAK EGIN
ROLAK BANATU
...

DOKUMENTATU

ELKARRIZKETATU, ERREPORTARI LANAK
ERREKORTEAK EGIN
BILAKETAK EGIN GOOGLÉN
TESTIGANTZAK JASO
MAPA BAT SORTU
BILDUMAK EGIN
ARGAZKIAK EGIN
BISITA GIDATUAK EGIN
...

ANALIZATU

PELIKULA IKUSI
MUSIKA ENTZUN
IRAGARKIAK IKUSI, BILDU
ALDIZKARIAK AZTERTU
JENDEAREN JOKABIDEA AZTERTU
PUNTUAZIOAK SORTU
ALBISTEAK
...

ESPRESATU

MARRAZKIAK EGIN
ARGAZKIAK EGIN
ANTZERKIA
COLLAGEAK
GORPUTZ SILUETAK
KOMIKI BAT SORTU
MAKETAK EGIN
KROMOAK SORTU
SEINALEAK SORTU
...

- **Nerea Sancho Esnaola**

- Psikologoa eta Sexologoa
- Arremanitz Kooperatiba

Arremanitz

**Arremanitz / Arremanitz
Kooperatiba**